



Suhiltzaileek lan egin beharko dute gaur ere Asteasuko Itturralde baserrian

SUTEA ▶ Gauerdian pizturiko suak erabat kiskali zuen; ez zen inor bizi eta inguruko etxeak ez dira kaltetu ▶ 5



Sutearen arrazoiak ez daude oraindik argi; barruan tresneria eta egurrak gordetzen zituzten. N. URBIZU



E. MAIZ

Eskualdeko arraunlariak Pasai San Pedro taldean

TOLOSALDEA ▶ Iker Aranzegi ibartarra eta Andoni Leunda, Ander Ansa, Joseba Larrarte eta Ekain Yarza billabonatarak ▶ 4

TOLOSA ▶

Tolosan 27.568.048 euro inbertituko ditu Foru Aldundiak

Herritarrek internet bidez ikusi ahal izango dituzte aurrekontuak ▶ 3

IBARRA ▶

Ikastetxeko jangelako elikaduraz gaur, Uzturpe ikastolan

Kultur Astearen baitan, D'elikatuz zentroko Xabi Irastorza izango da ▶ 6



Gazteboak Uzturpeko jangelan jaten. M. SOROA

JON REKONDO ▶
AIZKOLARIA

«Asteburuan erabakiko da finalerdia»

Erasunekin batera jokatu du hilaren 10ean edo 17an ▶ 7

POLITIKA ▶

Larunbateko manifestaziorako autobusa

Milakabilaka taldeak etzi, Bilbon deitu duen manifestaziorako autobusa antolatu du ezker abertzaleak. Izen-emaitea ohiko lekuetan egin ahaliko dute interesatuek.

KULTURA ▶

'Katuska' zarzuela etzi, Leidorren

Katuska-ren kartela. HITZA

Katuska zarzuela izango da etzi, 20:00etan Leidor aretoan. Gerra ondorengo Ukrainan oinarrituriko lana eskainiko dute bilbotarrek.

GIZARTEA ▶

Nerabeen beharrei buruz hitzaldia Orixen

Gaur, 18.30ean, DBHko 1. eta 3. mailako gurasoek hitzaldia izango dute Orixen institutuan Hilario Garrudo psikologoarekin. Nerabeen behar psikosozialak izango da landuko duen gaia.

GIZARTEA ▶

Ekitaldiz beterik, bihar hasiko dira San Blas auzoko jaiak

Disko festa izango da bihar 18:30etik aurrera, festari hasiera emateko; etzi izango da San Blas Egun handia

ERREDAKZIOA

Urtero legez, otsailari ongietorria egitearekin batera iristen zaizkigu San Blas jaiak. Beraz, bihar hasi eta igandera arte, izen bera duen Tolosako auzoan festa giroa izango da nagusi, eta nola ez, ezaugarri nagusiak ere ez du hutsik egingo aurtengoa ere, erroskilak, alegia.

Motorrak berotzen hasteko, bihar musika izango da protagonista, disko festa antolatu baitute arratsaldetik gauerarte. Hurrengo eguna, larunbata, izango da egun handiena, hau da, San Blas Eguna; bertako produktuak bedeinkatu ahaliko dituzte auzoko bizilagunek goizean egingo duten Meza Nagusian, eta ondoren ume jolasak eta toka lehiaketa izango dira. Arratsaldean trikiti doinuak ez dira faltako, Elustondo anai-arrebak bertan ariko baitira.

Igandea izango da Emendek elkarteak antolatu eta Tolosako Udalak lagundutako jaien azken eguna; txaranga doinuek, dantza saioek eta aizkora apostuak, bertso emanaldiak eta trikiti osatuko dute eguneko egitaraua.



lazko jaietan, herritarrak erroskilak erosten. N. LATABURU

EGITARAUA ▶

OTSAILAK 2, BIHAR
18:30-21:00. Disko festa.

OTSAILAK 3, ETZI
11:00. Meza Nagusia, bertako produktuen bedeinkapena eginez.

12:00. Ume jolasak.
12:30. Toka lehiaketa auzokoentzat eta elkartekoentzat.

16:00. Toka lehiaketa probintziakoentzat.
18:00-21:30. Elustondo anai-arrebak trikitaliak.

OTSAILAK 4, IGANDEA
09:00. Diana, Konpenezinak txarangarekin.

11:00. Meza auzoko eta bazkide hildakoen alde.
12:00. Amaroako dantzariak.
12:30. Aizkolariak: Unai Otaño eta Iñaki Azurmendi.
13:00. Bertsolarien saioa, Andoni Egañarekin eta Jesus Mari Irazurekin.
18:00. Bertsolarien bigarren saioa.
18:00-21:00. Trikiti doinuak Elustondo anai-arrebekin.

KULTURA ▶

Maria Guinand zuzendariak ikastaroa eskainiko du

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak etzi eta igandean ikastaro bat jarriko du abian, Maria Guinand Venezuelako zuzendari «ospetsuarekin» musika iberoamerikarrari eskainiko zaioari. Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolan burutuko dira eskolak, eta Maria Guinandek erreperitorio hau landuko du: Carus Verlag editorialeko Makumbebe liburutik *Sabia Coração de uma Viola, El Alcatraz, El Santiguao* eta *Todo este campo es mio*; Earthsongs editorialeatik, berriz, ondorengo obra solteak: *Jubiaba, Confitemini domino* eta *El guayaboso*.

Informazio gehiagorako, Gipuzkoako Abesbatzen Federaziara (943 536973) deitu ahalko da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39
▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
▶ **Orendain.** Medikua: 655595
▶ **Orexa.** Medikua: 682228
▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 461111
▶ San Esteban: 006800
▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaroako dispen.: 672637
▶ Asunzio Klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536
▶ Gurutze Gorria: 674888
▶ Villabona. Anbulat.: 006970
▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02
▶ Donostiako autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621
▶ Leitzarar autob.: 948 221015
▶ Taxia: 670420
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
▶ Tolargi: 650016
▶ Iurrumendi egoitza: 670325
▶ Tolosa gasa: 675320

KIROLAK ▶

Ikasleak bote luzea praktikatu

I. Terradillos ▶ Euskal Soin Jarduera proiektuak «martxan jarri zenetik harrera polita darama». Atzo goizean Tolosan antolatu zuten pilota sustatzeko helburuz eginiko jaialdia. Beotibar pilotalekuan bildu ziren LH 6. mailako Jesusen Bihotza, San Juan eta Uzturpe ikastetxeetako neska-mutilak. Hala, 2 ordu inguru iraun zuen jaialdian, lehenengo zatian jolas desberdinetan aritu ziren gaztetxoak, eta bigarren zatian, berriz, bote luzeko partidak jokatu zituzten. I. TERRADILLOS



EKONOMIA ▶

Foru Aldundiak 27.568.048 euro inbertitzea erabaki du

Aplikazio aitzindari bati esker, herritarrek internet bidez ikusi ahal izango dituzte aurrekontuak eta hauen xedeak



2.197.469 euro bideratuko dituzte lurreamendi egoitzara. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiak 27.568.048 euro inbertituko ditu Tolosan. Hori dela eta, Jose Luis Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak Jokin Bildarratz alkateari Udalean egingo dituen ekarpen eta inbertsioen agiria bidali dio.

Kontu sail horiek Batzar Nagusiek joan den abenduaren 22an onartu zituzten 2007ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan jasota daude. Agiriarekin batera, gutun bat ere bidali dio alkateari Ahaldu Nagusiak. Hemen, Txabarririk adierazi duenez, udalka egindako foru aurrekontuaren bertsioa, udalez udal egingo diren inbertsioak eta gastuak banatuta, «Foru Aldundiak lurraldearen garapen orekatu eta iraunkorren alde egiten duen apustu garbiaren islada da».

Alor ezberdinetarako izango dira inbertsioak: abereen ekoizpena eta osasuna sustatzeko, adineko pertsoneri arreta emateko, azpiegitura hidraulikoak hobetzeko, fiskalitate eta finantzetako zerbitzu orokorretarako, errepideetarako, kirola sustatzeko... Dena den, diru kopuru handiena sektore publikoaren transferentzietara bide-

ratuko dute. 9.451.146 euro inbertituko dituztelarik UFFF-n, erakundearteko konpromenez. Agirian sartuta daude halaber, udalerrriko, Aparteko Inbertsioen Plana, Konpromisoko kredituak, Bidegi, Etorlur eta Uliazpi sozietate publikoaren aurrekontuak eta Udalak Finantzatzeko Fondoaren 2007ko aurreikuspenak.

Sistema aitzindaria

Bestalde, lehendabiziko aldiz, Foru Aldundiaren aurrekontuaren udalerririkako banaketak bertsio elektronikoa du. Hau, aurrekontuaren webgunean eskuratu daiteke: gipuzkoa.net/ogasanenet/aurrekontuak. Hala, erakundeek, gizarte eragileek eta tolosar gutziek era zuzenean eskuratu izango dute foru aurrekontua, baita ere udalerriz udalerriri nola banatuta dagoen ere.

Gainera, inbertsioen geografia kokatu nahiz bistara daiteke. Hala, aplikazio hau aitzindaria da herri administrazioaren esparruan, «aurrekontu bulego birtuala» osatzen baitu. Honekin herritarrek aukera dute internet bidez aurrekontu sailak eskueran eduki eta inbertsioaren xedea izango den inguru geografikoa kokatzeko nahiz bistartzeko.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Erantzuteko eskubidea (2)

Osoko bilkuran mozioaren aldekoak zirela, eta, ondorioz, proiektu gerontologikoa babesten zutela esan ziguten, proposatutako konponbidea errealista zelako; ez zutela ulertzen nolatan plataforma konponbidearen kontra egon zitekeen; eta gertatzen zena gertatzen zela, guk ezer ez genuelako konpondu nahi.

Gure ikuspuntutik, saldu nahi diguten ustiapen pribatu-ko gerontologiko hori ez da

konponbidea, baizik eta arazo honekin hasi ginenetik onar zitekeen konponbide bat gehiago, beste batzuen artean. Gure ustez, onar zitekeen konponbide txarrenetako bat baino ez da, eta ondoko lerroetan hori azaltzen saiatuko gara.

1. Udalak Foru Aldundiaren asmoen inguruan informatu izan bazituen herritarrek (nahita egin ez zuen zer bait), arazoa egoki konpondu ahal izango zen, eta, egun, Euskal Herria plazako gure gerontologiko maitea irekita izango genuen.

2. Foru Aldundiak, bere es-

kumena izaki, gerontologikoa ixteko asmoarekin jarraitu balu, Udalak egoitzaren eskumena hartu ahal izango zuen, lurreamendi (irabazi asmorik gabeko fundazioa) egoitzaren luzapena eginda, eta Foru Aldundiari azpieskualde honekiko konpromezuak betetzea eskatuta; konpromezu horiek Gizarte Zerbitzuen Mapan islatzen direlarik.

3. Foru Aldundiari aurre ez egitearren, hau defendatzeko gai ere ez baziren, beste konponbide bat ere bazegoen: Udalak lursailak utzi, Foru Aldundiak itzuli be-

harrik gabeko 2 milioi inguruko diru kopurua eman, eta zentroarekin egoitzako lekuen %60 adostu. Gainerako kapitala enpresa pribatu batek jartzen duelarik.

4. Osoko bilkuran onartutako konponbidean, Foru Aldundiak ez du zentimorik ere jarriko (ez baitago konpromezuak eskatzen dizkion Udalik), enpresa pribatuak egingo du inbertsio osoa.

5. Inolako zalantzarik gabe, konponbiderik txarrena Foru Aldundiak (EAJ) Udalaren laguntzarekin hartu zuena izango litzateke. Hala, herritarren

gehiengoaren babesarekin, Plataformaren erabateko oposizioari esker zapuztuta geratu zen (ezta erdigunekoa ere).

Jaun/andere agurgarrien ustetan, plataforma arazoaren konponbidearen aurka dago, baina ez da horrela. Konponbide hau ez zaigu egokiena iruditzen; izan ere, Tolosaldeko herritarrentzat konponbide hobea izanda, interes politikoenatik edo beste edozer motatako interesengatik baztertuak izan dira.

MANU LEUNDA (GERONTOLOGIKOAREN ALDEKO PLATAFORAREN ZENEAN) ▶ TOLOSA

Asmo berriak behar ditugu.
Egiguzu kritika.

www.eginbehardugu.com



ANDONI LEUNDA, ANDER ANSA, JOSEBA LARRARTE ETA IKER ARANZEGI ▶ PASAI SAN PEDROKO ARRAUNLARIAK

«Erraz harrapatzen zaituen kirola da»

Mailaz igo ostean, Pasai San Pedro aurten onenekin batera ariko da lehian; eskualdeko lau arraunlari gazte hauentzat aurreneko urtea da lehen mailan. Astean egun bat izaten dute atsedean hartzeko



Ezker-eskuin: Iker Aranzegi, Joseba Larrarte, Andoni Leunda eta Ander Ansa. ENERITZ MAIZ

ENERITZ MAIZ

Pasai San Pedroko arraunlariak diren, Andoni Leunda, Ander Ansa, eta Joseba Larrarte billabonarrekin eta ibartarra den Iker Aranzegirekin izan gara. Lana dela eta Ekain Yarza taldekide billabonarrak ezin izan zuten elkarrizketan parte hartu. Iaz mailaz igo zirela eta gogor ari dira entrenatzen aurten lehen traineruan sartu ahal izateko.

Nolatan aukeratu zenuten arrauna?

Andoni Leunda. Familian betidanik zaletasun handia izan da eta niri ere asko gustatzen zitzaidan. Probatzeagatik hasi nintzen duela zortzi urte.

Joseba Larrarte. Andoni ezagutzen nuen eta berarekin hitz egiten aritu nintzen probatu behar nuela. Berak animatuta, beste lagun batekin batera hasi nintzen duela bi urte.

Ander Ansa. Ikasten ari nin-

tzenez arratsaldeak libre nintzen eta probatzeagatik hasi nintzen. Beste billabonatar batzuk hasiak zirela enteratu nintzen eta, duela bi urte hasi eta gaur arte.

Iker Aranzegi. Lagun bat arraunean hastekoa zela eta berak bultzatuta hasi nintzen arraunean duela bi urte.

Erraza izan da ikastea?

A. A. Dena izan da zaila. Oraindik badugu zer ikasia, eta saiatzen dira erakusten eta hori ez da gutxi.

Kirol gogorraren fama du, horrela al da?

A. A. Hala da. Gehienbat, astean sei entrenamendu direlako da eta ia ez zaizu denbora librerik geratzen. Gogorra fisikoki baino gehiago oso lotua delako da; dena utzi behar duzu alde batera. Bestela, hasieran sufritu egiten da ipurdian eta eskuetan egiten dizkizun zauriegatik eta baita salto ederrak egin ere dutxara sar-

tzean. Baina gaur egun arazo haei aurre egiteko irtenbide batzuk badaude, hala ere, ahal den moduan moldatu behar izaten dugu.

Aurreko denboraldiari nola-ko balantzea egiten diozue?

A. L. Oso ona. Bai, San Pedrok azken urteetan izan duen mailarik hobereana erakutsi du. Aurreko denboraldian salto handia eman genuen.

Espero zenuten mailaz igozteak?

A. A. Ez eta ez dugu uste denboraldi hasieran inork espero zuenik. Denboraldia aurrera joan ahala, jendearan arabera oso ondo genbiltzan; behar bada ez mailaz igotzeko beste, baina ondo ibiliko ginela bai. Emaitzak azaltzen hasi ziren eta konfidantza hartu genuen eta baita sinesten hasi ere mailaz igotzeko aukerak genituela.

Zer esan nahi du igoera honen?

J. L. Beste urtebete jarraitu beharra! Orain onenekin ibili gabe ezin dugu utzi, nahiz eta gero, atzeko aldean ibili. Giroa, estropada eta maila hobekak izango dira. 32 arraunlari gaudene eta horietatik 18 aukeratzeko dira lehen taldean aritzeko. Aurreko urtean, denok sartu ginen; behin goraino igota lehen traineruan sartzeko gogor borrokatuko dugu.

Orain laguntza gehiago izango duzue?

A. A. Gutxiago ez da izango noski! Iaz San Pedrok ez zuen ez babeslerik ez eta dirurik

ere. Beste traineruak pegatinaz josiak ikusten genituen eta gurea berriz garbi garbia. Teletistik asko egingo du eta ea aurten zerbait sartzen den. Dirurik ez dugu irabaziko baina, bidaia eta gastuetarako adina lortzen bada, gu gustura.

Lana eta arrauna. Nola moldatzen zarete?

I. A. Denbora libre askorik gabe ibiltzen gara. Erreleboan dabilenak, nolabait aste bat galtzen du taldearekin entrenatzeko baina hala ere, goizez joan behar izaten dugu.

Nolako da zuen egun bat?

J. L. Azaroan asteburuak jai izan genituen eta abendutik aurrera, denboraldia bukatu bitarte, astean zeharreko egun bat izaten dugu jai. Larunbatak eta igandeak entrenatzera eta gure juergak akabo! Arratsaldeko zazpi eta erdietan hasi eta negu partean gu etxeratarako gaueko hamaikak izaten dira. Afaldu eta azkar ohera hurrengo goizeko seiatarako lanera joan behar bada.

Atsedean edo oporrak izan duzue?

A. L. Iraila bukaeran amaitzen dugu eta azaroa hasieran hasten gara, urria dugu oporretarako hilaibetea. Denboraldia oso luzea egiten da eta azkar pasatzen dira oporrak.

Dopina, pil-pilean izan den gala ezin ahaztu. Nola bizitu duzue?

A. A. Gertatutakoa, guretzat seriotasun gutxikoa izan zen eta guztiok ikuskizun ikaraga-

ANDONI LEUNDA

«Familian izugarritzko zaletasuna izan da betidanik eta duela zortzi urte hasi nintzen arraunean San Juanen»

ANDER ANSA

«Kirol oso lotua da eta dena utzi behar duzu; familia, lagunak, juerga... baina hala ere harrapatu egiten zaitu»

JOSEBA LARRARTE

«Nik garbi nuena maila berean beste urtebete ez nuela jarraituko zen. Orain lehen mailara igota, ezin utzi»

IKER ARANZEGI

«Irabazirik ematen ez dizun kirol batean, zure burua dopinarekin hondatzeak ez du zentzurik»

ria eman genuen. Azken finean, ez genuen inork atera behar eta guztiok atera ginen. Guk geuk, aurreneko aldia genuen Kontxako sailkapen estropadan parte hartzen genuela eta ilusio handia genuen arraunean egiteko. Ezin galdu onenen artean aritzeko aukera.

Eraginik izan du zuengan?

J. L. Ez. Baina denbora gutxi eman arren arraunean hasi gara konturatzen. Guk aste batetik bestera segundo bat hobe zateko izugarritzko ordu pila sartu behar ditugu eta beste batzuk aldiz, astebetean, hamabost segundo hobetzen dituzte. Eta pentsatzen duzu, nola liteke? Ondorio horietara iristen gara.

Gertatutakoaren gainean zer-bait esan nahi?

I. A. Punta-puntan ibiltzeko esate baterako beharrezkoa da, eta hartzen ez duenak badaki, ia zeregirik ez duela, eta tristeza hori da. Orduan eta diru gehiago eduki klubak, orduan eta erraztasun gehiago dago horrelako gauzetan sartzeko. Dena den, gure klubean oso garbi dagoen gaia da hau, egiten dena egiten dela, garbi.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldari laguntzaileak. Eskoletarako, udalretarako. 943 444866.
Gidariak. Erakunde publikoetarako. 943 444866.

GALDUTAKOAK

Argazki kamara. Olympus C-770 kamara galdu dugu. Norbaitek aurkitzekotan mesedez deitu

hurrengo telefono zenbakira: 675 708 278 (Ander). Mila esker.
Betaurrekoak. Gurea zinemaren betaurreko batzuk azaldu dira. Ikastolako idazkaritzan daude. 943 69 23 21.

SALGAI

Autoa. Seat Ibiza. 5 urte. 75.000 kilometro. Interesatuak deitu 665 708 208 zenbakira.

ASTEASU ▶ EZBEHARRA

Kiskali den baserrian gaur ere suhiltzaileak izango dira

Iturralden egurra eta laneko eta baratzan aritzeko tresneria gordetzen zituzten



Iturralde baserriko binpartek ez zuten hurbileko baserrietan eraginik izan. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Asteasuko Iturralde baserria osotara kiskali egin zen atzo gauerditik hasita. Atzoko egunean zehar kea zerion baserriari oraindik, bertan suak erraz erretzen duen egur pila handia baitzegoen, besteen artean.

00:30ak aldera suhiltzaileak azaldu ziren alde zaharreko baserri honetako txingarrak itzaltzen hasteko. Herritarrek ere lagundu zuten honetan, berez mangerak ere badirelako horretarako.

Iturralde baserrian ez zen inor ere bizi, «trasteak, garaje moduan erabiltzen baike-

nuen», zioen bertan laneko tresneria gordetzen zuenetako batek.

Haize gogorra ez egotearekin ez da ondoko etxebizitzetara sua zabaldu, «baina haize bortitzagoa egon izan balitz, baserri batek baino gehiagok hartuko zuketena, gutxienez txingarren bat sartuko litzate-

keelako», zioten herritar batzuek.

Atzo, egun osoan zehar nahiz eta surik ez ikusi kea zerion baserriari, eta zaintza lanetan aritu ziren suhiltzaileak. Kiroldegitik zuzendutako mangera erraldoi bat jarri zuten, une oro baserrian ura bota zezan.

Sutearen arrazoiak

Sutearen arrazoiak ez daude argi, «baina argi dagoena behetik hasi dena da: gauean baserria erretzen ikusi orduko, dagoeneko beheko ate nagusia kiskalita zegoen», argitu zuten lekuko batzuk.

Horrez gain, «zirkuitulaburak ez du sutea eragin, argindarrik ez dagoelako etxe guztian». Etxebizitzan obretarako tresneria, sutarako egurra, motozerraren bat, autoetarako olio, baratzerako tresneria eta bestelako gauzak zeuden. «Hauek ez dute sua eragin, ezinezkoa da», herritar batzuen esanetan. Honen arabera, «sutea norbaitek eragingo zuen, bestela honek ez du azalpenik».

Barruan bi zakur zeuden sutea hasi zenean, baina hautsitako leiho batetik atera ziren, garretatik ihes egitea lortuz.

IKAZTEGIETA ▶

Biharko afarian brigadista baten diaporamak

Ikaztegieta bihar Herrigintza elkarrean afaria egingo dute 20:30ean, autodeterminazioa eta amnistiaren alde. Ondoren, Alaitz Amundarainek brigadista bezala Venezuelan pasatako egunen diaporama jarriko dute ikusteko. Afaritarako pasta entsalada, haragi egosia eta natilla izango dituzte, 15 euroren truke. Biharko afaria Ikaztegieta ezker abertzaleak antolatu du; euskal preso politikoek kolektiboak eskualdean antolatuko dituen ekitaldi berezien baitan.

AMEZKETA ▶

Iker Karrera mendi lasterkaria saritua izango da

Iker Karrera amezketarrak Euskal Herriko Mendizale Federazioak banatzen dituen sarietako bat jasoko du aurki: kasu honetan, mendiko lasterketen saria emango diote. Sari hau iaz lortutako garaipenengatik emango diote; besteen artean, Espainiako Txapelketan 7. egiteagatik. Berez, Elgetako Espaloia aretoan izan behar zen lehengo astean jaialdi berezi hau, baina eguraldi txarrearrengatik bertan behera gertatu zen. Saria jasoko duen eguna zehaztu gabe dago oraindik.

TOLOSA ▶ AHT

Proiektuari buruz gehiago jakiteko ekitaldiak martxan dira

Gaur desjabetzeengatik kaltetuak izan direnak izango dira Kultur Etxean

N. URBIZU

AHTren inguruko jardunaldiak egiten ari dira Tolosako Kultur Etxean. Gaur beste mahai inguru bat izango da, eta lurren desjabetzearekin lotutako gaiak jorratuko dituzte. Kultur Etxean 19:30ean bilduko dira mahai ingurua egiteko: AHTren lurren desjabetzeak izenarekin egingo duten hitzaldia Onintza Ostolazak —EHNEko abokatua—, Mila Elorzak —

AHT Gelditu! Elkarlaneaneko kidea— eta desjabetzeak zuzenki kaltetu duen Agurtzane Diazek bideratuko dute.

Bihar, berriz, Kultur Etxean eta 19:30ean proiektzioa eta tertulia izango dira. Honetarako, Italiako Susa bailarako AHTren aurkako borrokaren eredu emango dute ezagutzera, eskualdean martxan jarri nahi duten trenarekin parekotasunak ikusteko. Ondoren, AHTren aurkako asanbladako

kide den Mikel Alvarez AHTrik ez! Gelditzea badago gaia jorratuko du.

Aurreko bi egunetan ere mahai inguruak egin dituzte Kultur Etxean, eta funtsean, «informazioa da jendeari falta zaiena», antolatzaileen esanetan. «Jardunaldi hauek horretarako balio dute, jendeak jakin dezan zer den AHT, eta zein eragin izango litzuzkeen ikustea».

Deialdi berezia

Jardunaldiekin bukatzeko mendi martxa egingo dute etzi, «AHT proiektuak kalteturiko inguruetara». Hiru orduko ibilbidea izango da eta Triangulotik aterako dira 09:00etan. Bukatzeko, manifestazioa egingo dute 12:30ean Triangulotik hasita. Jendartearen eraldatu dezagun! leloeko manifestazioarako deialdia luzatu dute.

ALEGIA ▶ KIROLA

II. Zazpie Pasa Pilota Txapelketa hasiko da

19 bikotek hartuko dute parte, eta lehen partidak etzi izango dira Alegiko frontoian

N. URBIZU

II. Zazpie Pasa Binakako Pilota Txapelketako bilera egin zuten lehengo astean Alegian eta bertan partidak noiz hasi eta zenbat parte-hartzaile izango ziren zehaztu zuten.

Etzi hasiko da txapelketa eta apirilaren 21eko asteburuan bukatuko da. 19 bikote dira guztira, 3 taldetan banatuta.

Partidak larunbatetan 15:30etik aurrera eta igandetan, 11:30ean hasita izango dira. Hauen berri jakiteko kar-

telak Tontokalen jarriko dituzte. Horrez gain, bikote bakoitzak partida-egutegia Kultur Etxean hartu ahal izango du.

18ra izango dira norgehiagoka guztiak eta irabazleentzat txapelak eta lau finalistentzat afaria izango dira.

Bertan parte hartu behar duen bikote bakoitzak 20 euro ordaindu behar du: horretarako antolatzaileekin jar daitezke harremanetan. «Ez bada ordaintzen, ezin izango dute parte hartu», antolatzaileek esan bezala.

IBARRA ▶ KULTUR ASTEA

Gurasoei haurren elikadura egokia zein den erakutsiz

D'elikatuz zentroak hitzaldia emango du gaur 18:30ean, Kultur Etxean

MADDI SOROA

Uzturpe ikastolak antolatuturiko Kultur Astearen baitan garrantzi eta jakinmin handiko gaia jorratuko dute gaur, haurren elikadura, hain zuzen ere. Horretarako, Xabi Irastorza, Ordi-ziako D'elikatuz zentrokidea izango da 18:30ean Kultur Etxean *Zaindu dezagun haurren elikadura!* lelopean hitzaldia emateko.

Hitzaldiaren gaia eskolako jangelako elikadura eta honek etxean eduki behar duen jarraikortasuna izango da nagusiki. Bide horretan, jangelak lehen eta orain zein toki duen, menu orekatua nola egin behar den edota elikadura osatua egiteko pausuak zein diren azalduko du Irastorzak. Horretaz gain, ordea, gurasoak asko larritzen dituen gaia landuko du hitzaldian: zer egin jan nahi ez duten haurrekin?

Xabi Irastorzak azaldu duenaren arabera «guraso asko dago kezka honekin eguneroko bizitzan uneoro gertatzen den gauza baita». Irastorzak argi dauka, ordea, «haurrek jan nahi ez badute, ez zaiela behartu behar», izan ere, «otorduak botere harreman bihurtzen dira askotan eta haurrak xantaia egiten» saliatzen direla uste du. Hala ere, «badakit hori lortzea zaila dela gurasoek ardurua handia izaten baitute gai



60 haur baino gehiagok bazkaltzen du egunero Uzturpe ikastolako jangelan. MADDI SOROA

honekin eta zaila suertatzen zaie haurrak jan gabe uztea», uste du Irastorzak.

Elikadura aholkularitza

D'elikatuz zentroa duela bi urte sortu zen Ordizian eta harrezkero Alde Zaharrean du bulegoa XVII. mendeko harrésiz inguratutako eraikinean. D'elikatuz-ek elikadura eta gastronomia lantzen ditu, elikadura atentzioa, nutrizio pautak edota aholkularitza eskaintzen dituelarik. Modu horretan, hau-

rrentzat, kirolarientzat edota beharra duen ororentzat heziketa unitateak sortzen dituzte. Horretaz gain, hitzaldiak, tailerrak edota bideo emanaldiak eskaintzen dituzte.

Gertu-gertukoa

Ibarrako Uzturpe ikastolak, sortu zenetik izan du jangelaz zerbitzua. Urterik urte, ordea, jangelan geratzen diren haur kopurua igoz joan da.

Une honetan 3 eta 16 urte arteko 60 eta 75 haur inguru iza-

ten da jangelan eguneroko otorduetan, horietatik gehienak, 3 eta 7 urte artekoak direlarik. Jatorriari dagokionez, haurren %80 Ibarrakoa da eta gainerakoak Ibaraldekoak. Haurrez gain, sukaldaria eta lau laguntzaile izaten dira eguneroko lanetan.

Zerbitzuari dagokionez, duela sei urtetik hona, eskolan bertan prestatzen dute janaria herrian erositako produktuekin eta sukaldean bertan prestatuta. «gertuko zerbitzua» eskaintzen dutela, alegia.

IBARRA ▶

Fernandezek laugarren postua lortu du Miami OCRn

Baliogabeko irteera batek lehen hiru postuetan egotea galazazi dio bikoteari

ERREDAKZIOA

Joan den igandean burutu zen AEBtan Rolex Miami OCR estropada. Jardunaldietan zehar Xabi Fernandez ibarrakoa eta Iker Martinez de Lizarduy bikotea lehen postuetan izan baziren ere, azken jardunaldian huts egin zuten eta laugarren postua lortu zuten azkenean.

Bikote gipuzkoarrak baliogabeko irteera egin zuten azken proban eta ondorioz azken postuan irten behar izan zuten. Modu horretan, puntu negatiboak batu zituzten eta sailkapen orokorreko lehen hiru postuetatik at geratu ziren.

Norgehiagoka handia izan zen Miami OCR, maila handiko 850 lagundik gora elkartu baitzen bertan. Hori dela eta, indarrak neurtzeko denboraldiko lehen test garrantzitsuena izan da. 2008an Pekinen burutuko diren estropadai begira, uztailean Portugalen eta irailean Italian jokatuko diren estropadak dira zita puntuagarri garrantzitsuenak.

ELDUAIN ▶

EHNA tramitatzeko aukera gaur udaletxean

M. SOROA

Elduaingo Udalak EHNA tramitatzeko aukera eskainiko die gaur herritarrei, izan ere, Euskal Herriko Nazio Agiria egiteko aukera izango baita gaur 15:00etatik 17:00etara udaletxean. Agiria egiteko interesa dutenek hiru argazki, errola agiria eta 15 euro eraman beharko dituzte. Elduaingo Udalak bi hilabetetik behin eskainiko du EHNA egiteko aukera, egokitzen den hilabeteko lehen osteguna izango delarik horretarako eguna.

IBARRA ▶ POLITIKA

Ez dute onartu De Juanaren aldeko mozioa

M. Soroa ▶ Udalbatza osoaren ohiko bilkura burutu zen atzo udaletzeko pleno aretoan. Gai zerrendaren artean, Etxeratek Iñaki de Juanaren inguruan aurkezturiko mozioa aztertu zen; besteak beste, De Juanaren «berehalako askatasuna exijitzea, haren aldeko ekitaldietan parte hartzea eta presonari atxikimendua adieraztea eta egoera salatzea» eskatu zituen Etxeratek mozioaren bidez. Aldeko boto batekin eta kontrako seirekin ez zen mozioa onartu. MADDI SOROA



JON REKONDO ▶ AIZKOLARIA

«Asteburu honetan erabakiko da finalerdian zeinen aurka ariko garen»

Data eta lekua zehaztu gabe dauden arren, otsailaren 10ean edo 17an izanen da, eta ziurrenik, Leitzan



N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Jon Rekondo aizkolaria Bina-kako Urrezko Aizkora Txapelketan aurrera doa eta Erasunekin batera finalerdia jokatu du. Eguna eta data zehaztu gabe daude oraindik, baina otsailaren 10ean edo 17an izanen da, eta ziurrenik, Leitzan.

Nolako da txapelketaren funtzionamendua?

Gure mailan, 24 urtetik beherakoan, 7 bikote gara, gure taldean 4, eta bestean, 3. Lau bikoteek elkarrekin jokatu beharra genuen. Aurreneko bi norgehiagokak irabazi genituen eta igande honetako jokatu baino lehen jada sailkatuta geunden.

Urrezko Aizkora txapelketa bezala nola ikusten duzu?

Maila handia du nire ustez. Gainera norgehiagoka guztiak telebistaz ematen dituzte eta aurrera jarraitzen baduzu, udako ongi etortzen da.

Finalerdietara iritsi baino lehen, lehenengo bi norgehiagokak nolakoak izan ziren?

Erraz irabazi genituen. 5 proba izaten dira eta bakararra galdu dugu bi saioetan. Bai nik, bai nire bikoteak ere aurkariak ongi ez zeudela ikusi genuen.

Hirugarren norgehiagoka Lesakan izan da.

Bai. Gu oso lasai joan ginen, guk gurea eginda baikenen-

kan. Aurkariak zer postutan gelditzen ziren jakitea zen hirugarren norgehiagokaren helburua.

Finalerdia nola ikusten duzu?

Gu ongi gaudela esango nuke, baina ea zer egiten dugun. Orain beste taldean besteek jokatu beharra dute. Asteburu honetan erabakiko da finalerdian zeinen aurka ariko garen.

Eta beste taldean aizkolarik bizkorrik ba al dago?

Bai, maila altua dute. Bikote bat jada sailkatuta dago, baina finalerdietan bikoteak gurutzatu egiten gara eta gu bigarren gelditzen direnen aurka ariko gara. Finalurrekoa irabaziz gero, lehenengo aurka jokatu dugu, Aldape eta Atutxa bizkaitarren aurka, eta hauek kriston maila erakutsi dute.

Bi bikoteren artean dago zailtza, beraz. Finalerdia noren aurka jokatzeko gustatuko litzazuke?

Amillano eta Cañamares nafarren aurka, hauek txarxeagoak baitira.

Olasagasti eta Mindegiaren inguruko eztabaida nola ikusten duzu?

Bi bikote hobetsuenetariok pikutara joan dira. Mindegiak ez du jokatu eta Olasagastirena oraindik erabakitze dago. Hala ere hauek aterata izan balira txapelketak emozio gehiago izango luke.

LEITZA ▶ PILOTA

Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa hasiko da etzi arratsaldean, Amazabal pilotalekuan

Iera Agirre eta Saioa Iraola pala-jokalariek jokatu dute lehenengo norgehiagoka

N. GARZIA

Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa hasiko da etzi, 16:00etan. Lehenengo norgehiagoka honetan Saioa Iraola eta Iera Agirre pala-jokalariek jokatu dute.

Saioa Iraolak eta Iera Agirrek 6 bat urte daramatzate palan jolastan eta Euskal Herriko Txapelketa hau bi aldiz irabazi dute, kadete mailan. Aurten, berriz, aurreko urtean bezala, haiei berez ez dagokien kategoria batean jokatu beharko

dute. Iera Agirrek azaldu duen bezala, «gure mailan neska gutxi gaudenez, helduekin jartzen gaituzte eta oso onak dira».

Euskal Herriko Txapelketaren lehenengo partida Leitzan jokatu arren, «aurkariak non-

goak diren hartuko dute aintzat eta orduan aste batean Leitzan jokatu da, eta bestean, aurkarien herrian». Oraindik noren aurka jokatu duten ez jakin arren, larunbatean, Saioa Iraola eta Iera Agirre Amazabal pilotalekuan izango dira.



Iera Agirre. J. ASTIBIA



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Zain dezagun *haurren elikadura* hitzaldia eskainiko du D'elikatuz elikadura zentroak Kultur Etxean 18:30ean, Uzturpe Ikastolaren Kultur Astean.
Ibarra. Santa Ageda bezperarako Santa Ageda eskea antolatu du Hauspoa Elkarteak. Entsegua 20:00etan udaltxe azpian.
Ibarra. Aukeran dantza taldearen *Bideak* ikuskizuna izango da kiroldegian 22:00etan. Sarrerak salgai ikastolan, Zubiaurren, Karlutzen, Denaken, Rakun eta Orbelan helduentzat 10 euro eta 16 urtetik beherakoek 5 euro.
Elduain. Udalak EHNA tramitatzeak aukera 15:00etatik 17:00etara udaltxean.

Tolosa. *AHTrik ez!* lelopeko jardunaldien baitan, AHTren lurren expropiazioak mahai ingurua izango da Onintza Ostolaza (EHNEko abokatua), Miñe Elorza (AHT gelditu! Elkarlaneko kidea) eta kaltetuekin batera.
Tolosa. Amaroztarrak Usabal, San Blas eta auzoan bertan kantari aterako dira igandean, Santa Ageda bezperan. Entseguak asteazkenean eta ostiralean 20:00etan Auzoetxean izango dira.

ZINEMA

Tolosa. Hiner Sakem zuzendariaren *Vodka lemon* filma emango dute zine-forumean, Leidor zineman 19:15ean eta 21:45ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Lekunberri. Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko* ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errebasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketak, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko* ahotsa (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli* uhinak.
 21:00-23:00. *Bide* okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Kostatik Zerkausira

TOLOSA ▶ Goenkale telesaileko grabaketak egingo dituzte asteazkenero Zerkausian eta Triangulo plazan; atzo egin zuten lehen grabaketa saioa



Zerkausian grabatu zituzten Tolosako lehen atalak; asteazkenero izango dira herrian. I. TERRADILLOS

ERREDAKZIOA

Maria Luisa, Koldo, Leonor, Tximista... Euskaldun askoren eta askoren artean izen ezagunak dira. Aspalditik ETB-1eko Goenkale telesaileko pertsonaiak dira eta atotzik, asteazkenero-asteazkenero Tolosako paisaiaren parte izango dira. Izan ere, Orio utzi eta kanpoaldeko sekuentziak Tolosako Zerkausian eta Triangulo plazan grabatuko dituzte.

Atzo burutu zuten lehen grabaketa saioa Zerkausian, hotsari aurre egin. Begi-luze ugari hurbildu ziren bertara grabaketaren berri izan zuten. Jokin Bildarratz «pozik» azaldu da Goenkale Tolosara ekartzearen erabakiarekin. Ohikoa bilakatuko da, beraz, astero aktore eta kamera hauen presentzia gurean.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Bea (Anoeta). Gaur 29 urte. Manu, Arantxa, Joxe Mari, Juanjo, Asier eta Alaitzen partetik.



URTE ASKOAN
Nahia Ortiz Vicente. Gaur urtebete. Zorionak etxeko partetik.



URTE ASKOAN
Mikel. Hau dek marka! Orain dela gubki honela eta orain Kristoren edadea.



URTE ASKOAN
Garazi Susin Marcos. Gaur 3 urte. Zorionak Sararen partetik.



URTE ASKOAN
Nahia Ortiz Vicente. Gaur urtebete. Zorionak aitabato eta amabaren partetik.



ZORIONAK!
Pedro eta Joakina (Alegia) Gaur 56 urte ezkondu zinetela. Zorionak etxeko partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaltxeko bulegoa

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...